

Gurutze Gorriko larrialdietako taldeek 15 aldiz areagotu dituzte Behin-behineko Aterpetxeko esku-hartzeak pandemia hasi zenetik

- **Etixerik gabeko pertsoneri ematen zaien laguntza nagusietako bat da hori, eta 5.800 ostatu-plaza jarri ziren behar zutenen eskura konfinamenduan zehar.**
- **Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Taldeek berehala jartzen dituzte abian beren baliabideak, alerta aktibatzen denetik 12 orduan gehienez ere.**
- **Tokiko eremuan larrialdietako arreta indartzeko, Larrialdietan Oinarrizko Erantzuna emateko Taldeak sortu dira.**

21/09/13. Pertsonen bizitza arriskuan jartzen duten egoerak gainditzeko jardutea da Gurutze Gorriko Sorospen arloaren leitmotiv-a. Horretarako, planak jartzen ditugu abian, hondamendi naturaletan edo bestelako larrialdi-egoeretan eraginpean egoteko arriskua murrizteko eta laguntza azkarrago jaso ahal izateko. Alde horretatik, **Gurutze Gorriaren konpromisoa da egoera desberdinetara egokitzea, larrialdietako eta babes zibileko sistemaren parte den aldetik, alerta goiztiarreko mekanismoak eta gomendioak garatzea, eta sorospen-katea bermatuko duen laguntza azkarra eta kalitatezkoa sustatzea.** Hala, Gurutze Gorriak laguntza ematen die kostaldera iristen diren pertsona migratzaileei, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei, desgaitasunen bat duten pertsoneri, bainu egokituaren bidez (ekipamenduarekin eta langile espezializatuekin) udaz segurtasunez goza dezaketenei, edo aurreikusteko moduko arriskuren bat egon daitekeen leku batean (adibidez, ekitaldi jendetsu batean edo ur-ingurunean) dagoen edozein herritarri.

Premisa horiek kontuan hartuta, **Gurutze Gorriak 300.000 lagun artatu zituen 2020an, lurralde osoan dituen 71.000 boluntario baino gehiagori esker.** Larrialdietan bakarrik 137.000 lagun baino gehiago izan ziren, eta hondartzetan eta uretako beste prebentzio-zerbitzu batzuetan, berriz, 51.000 lagun izan ziren. Garraio soziosanitarioaren bidez ere 43.000 lagunengana iritsi zen laguntza, 20.000

lagun artatu ziren kirol-, kultura- edo jai-ekitaldietan, eta 1.124 lagun, berriz, itsasoan.

Gurutze Gorriak 2020an izan duen erronka handienetako bat COVID-19k sortutako beharrei erantzutea izan da. **Cruz Roja RESPONDE** planaren bidez, 'lehen boladan' Sorospen arloak erregistratu zituen esku-hartze gehien: hasiera-hasieratik aktibatu zen erantzuteko jarduera lurralde nazional osoan, eta, horretarako, **kudeaketa operatiboko taldea sortu zen, beharrezko laguntza eman eta jarraipen nazionala egiteko, eta tokiko eta uneko baliabideetara eta beharretara egokitu zen laguntza.**

Horren harira, adibidez etxerik gabeko pertsonen eta antzeko kolektiboek emandako laguntzaren ondorioz, **Behin-behineko Aterpetxean Berehalako Erantzuna emateko Taldeen esku-hartzeak % 1.500 areagotu ziren**, "5.800 ostatu-plaza baino gehiago jarri genituen behar zutenen eskura, etxerik gabeko pertsonen konfinamendua egin zezaten", adierazi du Iñigo Vila Gurutze Gorriko Larrialdietarako Unitateko burua. Era berean, kaltetutako 21.000 lagun baino gehiago lekualdatu ziren premiaz, eta 360.000 lagun artatu ziren, laginak hartzen lagunduz. Larrialdietako Unitateak oinarritzko ondasunak banatu zituen etxeetara *"urte hasieran imajinatu ere ezin ziren zifrak: 850.000 produktu, besteak beste, norbera babesteko ekipamenduak, botikak, higienarako eta elikadurarako oinarritzko produktuak"*.

Osasun-sistemari laguntzeko, aldi baterako 30 ospitale-azpiegitura baino gehiago jarri ziren, eta Arreta Psikosoziarako Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Taldearen jarduerak % 300 egin zuen gora aurreko urtearekin alderatuta. Nabarmentzekoa da larrialdiaren lehenengo fasean parte hartu zuten langileei berei emandako arreta. Guztira, **1.200.000 laguni baino gehiagori eman zien arreta eta 2.368.000 erantzun baino gehiago kudeatu zituen Sorospenen jakintza-arloak pandemian.**

Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Taldeak (LBET-ERIE)

Gurutze Gorriko Larrialdietan Berehalako Erantzuna Emateko Taldeen (LBET-ERIE) jardueraren zati handi bati eragin bazion ere COVID-19 pandemiak, iaz gertatu ziren beste egoera batzuetan ere, hala nola DANA (Depresio isolatua maila altuetan) fenomeno meteorologikoak (tanta hotza), suteak edo istripuak izan zirenean, esku hartu behar izan zuten Gurutze Gorriaren LBET-ERIEek. **3.000 esku-hartze inguru egin ziren larrialdi-egoeretan 138.000 lagun artatzeko**, bai behin-behineko ostatua emateko, laguntza psikosoziala eskaintzeko, komunikazioak erraztuz, bai uretan nahiz lehorrean bilatu eta erreskatatzeko.

Gurutze Gorriko LBET-ERIEek erantzun espezializatua ematen diete larrialdi baten biktimen beharrei. Besteak beste, **lehen sorospen sanitarioak eta psikosozialak eskaintzen dituzte, desagertutako pertsonak bilatzen lan egiten dute, uholdeetan etxebizitzak garbitzen laguntzen dute eta premiazko produktuak banatzen dituzte.** Talde horietako boluntarioek curriculum- eta lanbide-profil

espezializatuak dituzte, besteak beste, osasunaren edo arreta sozialaren arloetan.

Gaur egun, Gurutze Gorriak 38 lurraldetan ditu Behin-behineko Aterpetxe taldeak; 17 osasun laguntzakoak; 17 etorkinei laguntza humanitarioa ematekoak; 9 ur-inguruneko bilaketa eta salbamendukoak; 13 lehorreko bilaketa eta salbamendukoak; 12 komunikazio eta koordinaziokoak eta 45 esku-hartze Psikosozialekoak. **16.500 lagunek baino gehiagok hartzen dute parte larrialdiei erantzuteko talde horietan.**

Larrialdietan Oinarrizko Erantzuna emateko Taldeak (LOET-ERBE)

“Larrialdietan Oinarrizko Erantzuna emateko Taldeak berehala esku hartzeko prest egoten dira; esku hartzeko duten denbora aldatu egiten da espezialitatearen, larrialdi-motaren eta beharrezko baliabideen arabera, baina, arau orokor gisa, berehala prest egoteko konpromisoa dute, gehienez ere 12 orduko epean esku hartzeko”, adierazi du Iñigo Vilak.

Tokiko eta eskualdeko eremuan, **Larrialdietan Oinarrizko Erantzuna emateko Taldeak (LOET-ERBE) hurbileko larrialdietan oinarrizko erantzuna emateko diseinatutako taldeak dira, tokiko, eskualdeko eta uharteetako batzarretarako prestatutako boluntarioen bidez.** Talde horiek, gainera, zuzenean eta denbora errealean ematen dute gertatzen ari denaren egoerari eta bilakaerari buruzko informazioa, eta egoerak hala eskatzen badu, LBET-ERIEen erantzun espezializatu aktibatzen da. LOET-ERBEak udal babes zibileko tokiko planetan integratzeko diseinatuta daude, eta indartu egin dira Gaztela eta Leonen edo Valentziako Erkidegoan, eta Gaztela-Mantxan ere hasi dira lanean. Beraz, 2021erako jarduera Asturiasera, Galiziara, Kataluniara, Murtxiara eta Euskal Autonomia Erkidegora zabaltzeko asmoa dago.

Nazioarteko erantzuna larrialdietan: *Emergency Response Unit (ERU)*

Espainiako Gurutze Gorriak nazioarteko hondamendiei erantzuteko baliabideak ere baditu, Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Federazioaren bidez. Talde tekniko hori larrialdietan esku hartzeko dago, ekipamendu estandarizatu batekin eta nazioarteko ordezkarien bidez. Gutxienez hilabete batez autosufizienteak izateko planteatuta daude Larrialdiei Erantzuteko Unitateak (ERU). Gaur egun, honako unitate hauek daude: logistika, saneamendu masiboa, banaketak, ura eta saneamendua, telekomunikazioa eta larrialdietako klinika.